



INDUSTRIA, TRANTSIZIO
ENERGETIKO ETA
JASANGARRITASUN SAILA
Ingurumen Sailburuordetza
Ingurumen Administrazioaren
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y
SOSTENIBILIDAD
Viceconsejería de Medio Ambiente
Dirección de Administración
Ambiental

EBAZPENA, 2025eko maiatzaren 5koa, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren zuzendariarena, zeinaren bidez formulatzen baita Zumarragako (Gipuzkoa) Z1.2 eremuko (2. Altzairutegia) Plan Partzialaren ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua.

AURREKARIAK

2025eko urtarrilaren 14an, Zumarragako Udalaren eskabide bat jaso zen Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzan, «Zumarragako Z1.2 eremuko (2. Altzairutegia) Plan Partzialaren» ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua eman zezan zuzendaritza honek, bat etorrita Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearekin eta Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearekin.

Eskabideari dokumentazio hau erantsi zitzaion: planaren zirriborroa, hasierako dokumentu estrategikoa eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren V. eranskinean dakarren formularioa. Dekretu horrek planen eta programen ingurumen-ebaluazioaren prozedura arautzen du.

Ingurumen-organoak bete egin du abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 9. artikuluan agintzen den kontsulta-izapidea, 2025eko martxoaren 8an hasia. Emaiza espedientean dago jasota. Era berean, Zumarragako Udalari izapiderearen hasieraren berri eman zitzaion.

Halaber, espedientean jasotako dokumentuak eskuragarri egon ziren Eusko Jaurlaritzako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren webgunean, interesdun orok ingurumenaren arloan egokitzen jotzen zituen oharrek egiteko.

Txostenak jasotzeko indarrean dagoen legedian ezarritako epea bukatuta eta jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu zen ingurumen-organoak bazituela behar beste judizio-elementu ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan xedatutakoaren arabera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 60. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da planen ingurumen-ebaluazioa arautuko duten oinarriak ezartzea plan horiek ingurumenean eragin nabarmena izan dezaketenerako, ingurumena ondo babesteko dela bermatzeko eta garapen jasangarria sustatzeko asmoz.

Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 72. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta egin behar zaie administrazio publiko batek abian jarritako plan eta programei, bai eta haien aldatetegi eta berrikuspenei ere (II.A eranskinean zerrendatu dira), legezko edo erregelamenduzko edota Gobernu Kontseiluaren xedapen batek beharturik prestatu badira, baldin eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera legez behartutako proiektuek etorkizunean baimentzeko esparrua ezartzen badute eta eranskin horren 6. atalean jasotako arloei buruzkoak badira.

Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 68. artikulua xedatzen duenez, plan baten ingurumen-ebaluazio arrunta hasteko, beharrezkoa da ingurumen-organoak zehaztea zein den ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena, eragindako administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egin ostean.

Bestalde, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 18.1 artikuluan xedatzen du irismen-dokumentua hasteko eskabideari zer dokumentu erantsi behar zaizkion, eta, abenduaren 9ko 21/2013 Lege horri aurka egiten ez dioten alderdietan, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikulua zabaldu eta osatzen du hasierako dokumentu estrategikoari erantsi beharrekoaren edukia.

Azkenik, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren irismena zehazte aldera, aintzat hartu dira abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. eranskinean jasotako eskakizunak, ingurumen-azterketa estrategikoaren edukiari buruzkoak, baita urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren I. eta II. eranskinetan jasotakoak ere, erreferentzia-dokumentuaren edukiaren ingurukoak eta ingurumen-jasangarritasunari buruzko txostenaren edukiaren ingurukoak, hurrenez hurren.

Espedienteko txostenak aztertu dira eta honako hauek guztiak ere kontuan hartu dira: 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena; 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena; 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena; 410/2024 Dekretua, abenduaren 3koa, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena, eta aplikatzeko den gainerako araudia. Horiek horrela eta orain arte azaldutakoari jarraikiz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa. – Zumarragako Z1.2 eremuko (2. Altzairutegia) Plan Partzialaren (aurrerantzean, Plana) ingurumen-ebaluazio estrategikoari buruzko irismen-dokumentua egitea, ingurumen-ondorioetarako bakarrik eta honako baldintza hauetan:

1. Planaren xedea eta ebaluazio-prozesuaren irismena.

Jarduketa-eremua 193.660 m²-koa da, eta Zumarragako 2016ko Arau Subsidiarioen Aldaketan definitutako «Z1.2 (2. ALTZAIRUTEGIA)» eremuari dagokio. Zumarragako hirigunearen hegoaldean dago, Urretxuko udal-mugartearekin mugan. Eremuak zabortege zaharra eta Arcelor Mittalen fabrikak 2016. urtera arte altzairugintzako jarduera garatu zuen lurzoruen zati bat hartzen ditu.

Iparraldean, honako hauek ditu mugakide: batetik, Zumarragako Argixao industrialdera eta Antonio Oraá bizitegi-enklabera sartzeko tokiko bide-sarea, eta, bestetik, GI-2632 errepidea; ekialdean, Argixao industrialdea eta lurzoru urbanizaezina; hegoaldean, lurzoru urbanizaezina; eta mendebaldean, Urola ibaiaren ibilgua, Urretxuko udal-mugartearen dagoen Kaminpe industria-enklabetik bereizten duena, eta GI-2632 errepidea. Eremuan sartutako lursailek desnibel handia dute: gorantz egiten dute GI-2632 errepidetik goiko kotan dagoen zabortegiraino.

Plan Partzialaren xedea da «Z1.2 (2. ALTZAIRUTEGIA)» eremuaren antolamendu xehatua ezartzea, Arau Subsidiarioek esleitutako eraikigarritasunarekin, lekua berreskuratzeko, jarduera berrietara egokitzeko eta sarbidea hobetzeko.

Eremuari erabilera industriala esleitzen zaio, oro har, eta Planak lortu nahi dituen helburu zehatzen artean honako hauek aipatzen dira:

- Z1.2 (2. Altzairutegia) eremua urbanizatzea, bere industria-bokazioari eutsiz.
- Proiektatutako biribilgunetik sarbide berri bat zehaztea, 1. Altzairutegia eremuaren obra osagarri gisa:

Sarbide berria GI-2632 errepidetik egitea proposatzen da, 1. Altzairutegiko HAPBan urbanizazio osagarri gisa definitzen den biribilgunea erabiliz. Biribilgune horretatik bide bat zehazten da eremuaren beheko aldera sartzeko; zehazki, txatarren pabiloira sartzeko, E2 eraikina izenekoa eta P2 lurzatiari lotuta dagoena, eta proiektatutako eraikin berri batera, E3 izenekora, P3 lurzatiari lotuta dagoena. Bidetik P1 lurzatira ere badago sarbidea.

- Zaborteziaren egungo erabileraren balioa handitzea eta jarduera berri batekin duen lotura.
- Eskakizun topografikoekin bateragarriak diren industria-aprobetxamendu berriak antolatzea. Horretarako, hiru industria-lurzati definitu dira:
 - P1 lurzatia: 129.129 m² Bertan, agregakinen balioa handitzeko jarduera garatuko da. Agregakin horiek zabortezi zaharrak eta Kaminperen kanpoaldeko instalazioek erabiliko dituzte, Urola ibaiaren beste aldean daudenek (Urretxuko udal-mugartean). Lurzati honetan E1-A eraikina mantentzen da, 740 m²-koa, Kaminperi lotua dagoena, eta bi eraikin berri proiektatzen dira: E1-B eraikina, 1.000 m²-koa, lehengo zaborteziaren biltegitzatzeari lotua, eta E1-C eraikina, 2.000 m²-koa, Arcelorren biltegi zaharren gainean dagoena, eraikinaren mugimendu-eremuak ezartzen dituenak.
 - P2 lurzatia: 12.190 m². Gaur egungo E2 pabiloia hartzen du, 5.047 m²-ko azalera duena.
 - P3 lurzatia: 9.502 m². 4.300 m²-ko azalera okupatzen duen bi altuerako E3 pabiloia hartzen du.
- Azpiestazio elektriko berri baten kokapena:

Eremuan Red Eléctrica Española-ren azpiestazio elektrikoa dago, martxan. Horren lurzatiak Plana mugatzen du, eta Azpiestazio Elektrikoaren Hiri Zerbitzuaren erabilera esleitzen dio, 6.299 m²-ko azalerarekin.

Era berean, Iberdrolaren azpiestazio elektriko (aurrerantzean, SE) berri baten antolamendua arautzen da, aurrekoaren ondoan dagoen lurzatian, Arcelorren biltegi zaharren gainean, eta 8.712 m²-ko azalerarekin.

Guztira, 15.011 m²-ko azalera, hiriaren zerbitzura egongo den azpiestazio elektrikorako.

- Ingurunean integratzea, perimetroko berdegune berriekin: perimetroko berdegune publiko berri bat definitzen da, 23.255 m²-ko azalerarekin (hots, Planaren eremu osoaren % 12).

Alternatibei dagokienez, hasierako dokumentu estrategikoak 0 alternatiba edo «ez esku hartzekoa» jorratzen du, egungo egoeratzat hartzen dena eta industria-jardueraren garapen posiblerik ez duena, eta 2 antolamendu-alternatiba. Biek ala biek antolamendu-proposamenak egiten dituzte: eremurako sarbidea GI-2632 errepidetik egitea, azpiestazio elektriko berria jartzea eta ingurunean berdegune berriekin integratutako industria-aprobetxamendu berriak jartzea; haatik, elkarren arteko desberdintasunak dituzte, jarraian adierazten den moduan.

1. alternatibak, dauden bi eraikinak mantentzen dira, eta oin berriko eraikinak gehitzen dira. Horietan, Arau Subsidiarioetan baimendutako 10.000 m² berriak kokatzen dira: E1-B (1.000 m²), E1-C (2.000 m²), E3 (2.971 m²) eraikin berriak eta eremuaren beheko aldean dagoen txatarren pabiloiaren (E2 eraikina) eraikigarritasunaren kopia, 5.047 m² berrirekin. Azpiestazio elektriko berria (aurrerantzean, AE), eremuaren beheko aldean dago, pabiloiaren ondoan, Arcelorren instalazio zaharren gainean. Perimetroko berdegune publikoak 23.255 m²-ko azalera du, hau da, Plan Partzialaren eremu osoaren % 12.

2. alternatibak lehendik dauden bi eraikinak mantentzen ditu, eta oin berriko hiru eraikin hartzen ditu. Horietan, Arau Subsidiarioek baimendutako 10.000 m² berriak kokatzen dira: E1-B (1.000 m²), E1-C (2.000 m²) eta E3 (4.320 m²) eraikinak. AE berria lehendik dagoen azpiestazioaren ondoan dago. 23.255 m²-ko azalera duen perimetroko berdegune publiko bat definitzen da, hots, Plan Partzialaren eremu osoaren % 12.

Ingurumen-dokumentu estrategikoan egindako alternatiben analisiaren arabera, 0 alternatiba baztertu egin da, ez duelako ahalbidetzen eremuko industria jardura garatzea. 1. alternatiba baztertu egin da, AE lehendik dagoen azpiestaziotik bereizita jartzen delako eta zaila delako industria-aprobetxamendu berriak bertara iristea. 2. alternatiba hautatu da, honako arrazoi hauengatik: AE berria dagoenaren ondoan jartzeagatik eta txatarren pabiloiaren ondoan altuera bikoitzeko eraikin bat dagoelako; izan ere, hala, industria-multzo identifikagarri bat sortzen da, ondoko lurzatietatik erraz sartzeko modukoa.

Planaren zirriborroak adierazten du proposatutako antolamendua aurretiazko planteamendu bat dela, eta modu sakonagoan garatu beharko dela behin betiko Plan Partziala idazteko prozesuan zehar.

2. Ingurumen-helburu estrategikoak, eta aplikatu beharreko jasangarritasun-printzipioak eta -irizpideak.

Ingurumen-azterketa estrategikoak berariaz justifikatu beharko du Planak nola ezarriko dituen araudietatik, estrategietatik eta oro har onartutako programetatik eratorritako ingurumen-helburuak; 2020ko IV. Ingurumen Esparru Programaren helburu estrategikoak eta jarduketa-lerroak hartuko dira Plana egiteko funtsezko oinarri gisa. Horiek indarrean jarraitzen dute 2030eko Ingurumen Esparru Programako eraldaketa-proiektuetan. Gainera, kontuan hartu beharko dira 211/2012 Dekretuan jasotako irizpideak (211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena) eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean ezarritako helburuak eta printzipioak, bai eta Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeko azaroaren 25eko 9/2021 Legean zehaztutako helburuak eta printzipioak ere.

Era berean, kontuan hartuko dira Planari aplikatu behar zaizkion lurralde-antolamenduko planetan eta plan sektorialetan ingurumena babesteko finkatutako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak.

Zehazki, garapen jasangarriko printzipio hauek gidatuko dute Plana:

- a) Lurzorua zentzuz eta modu intentsiboan erabiltzea eta lehendik ere artifizializatuta dauden lurzoruen erabilera intentsiboa lehenestea, balio agrologiko handiko lurzorua eta lurzoru naturala urbanizatzetik babestuta.
- b) Hiri-segregazioa, hiri-barreiadura eta mugikortasun behartua saihestea, irisgarritasuna sustatuz, lurzoruaren erabileren eta mugikortasunaren plangintza integratuaren eta hiri-egitura dentso, trinko eta konplexuen bidez.

- c) Lurzoruaren zigilatzea murriztea, lurzorua jasangarritasun handiagoz erabiliz eta ahal beste eginkizuni euts diezaion sustatuz.
- d) Ur-masen egoera ekologiko ona zein baliabide horren erabilera jasangarria lortzea.
- e) Habitata eta espezieak, natura-ingurumena eta konektagarritasun ekologikoa zaintzea eta hobetzea.
- f) Saihetsezin gisa ebaluatutako kapital naturalaren galerak konpentsatzea, eta konpentsazio horretarako beharrezkoak diren mekanismoak ezartzea
- g) Biodibertsitatearen galera geldiaraztea, ekosistemak leheneratzea eta lurzoruen artifizializazioa mugatzea.
- h) Paisaia eta kultura-ondarea kontserbatu eta hobetzea.
- i) Ondare geologikoa kontserbatzea.
- j) Natura-baliabideen erabilera jasangarria sustatzea: ura, energia, lurzorua eta materialak.
- k) Hauek sustatzea: energia aurrezte, energia-efizientzia eta energia berriztagarrien erabilera eta kogenerazioa.
- l) Aire garbia bermatzea eta zarata-maila handien eta argi-kutsaduraren eraginpean bizi diren biztanleen kopurua murriztea.
- m) Klima-aldaketarekiko urrakortasuna gutxitzen laguntzea, eta, horretarako, kaltea arintzeko eta aldaketara egokitzeko neurriak integratzea.
- n) Arrisku naturalak minimizatzea.
- o) Kutsatutako lurzoruen kudeaketa hobetzea, lurzoruen agenteen eta erabiltzaile potentzialen berme juridikoa eta jardura indartuz.

3. Eremu geografikoa eta ingurumenaren aldetik garrantzia duten eremuak.

Zumarragako Z1.2 (2. Altzairutegia) eremua hirigunearen hegoaldean dago, Urretxuko udalerriaren mugaren ondoan, eta zabortege zaharra eta Arcelor Mittalek 2016ra arte altzairugintza-jardura garatu zuen lurzoruen zati bat hartzen ditu. Udalplanekin bat etorritik, eremuko lursailak Jardura Ekonomikoetarako Lurzoru Urbanizagarri Sektorizatu gisa daude sailkatuta.

Eremuak ez du ukitzen Natura 2000 sareko naturagune babesturik, ez eta inbentarioan sartutako beste gune babestu edo natura-interesekorik ere. Halaber, ez dauka inbentario edo katalogoren batean jasotako paisaia-baliorik, eta ez du ukitzen EAEko Interes Geologikoko Lekuen Inbentarioan sartutako interes geologikoko lekurik. Aipatu behar da eremuaren ondotik Urola ibaia igarotzen dela, zeina EAEko korridore ekologikoen sarean sartuta baitago.

Litologiari dagokionez, detritikoak txandakatzen dira, porositateagatik iragazkortasun txikia dutenak. Topografiari dagokionez, desnibel handia du eremuak, eta gorantz egiten du GI-2632 (+372) errepidetik, mendebaldera, zabortegiraino, eremuaren hegoaldean kota handiago batean (+455) dagoena. Hasierako dokumentuaren arabera, eremuaren batez besteko malda % 16,43koa da.

Eremua «Urolaren unitate hidrologikoan (UH)» dago, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoan (ES017). Zehazki, Urola-B (ES111R030020) gainazaleko ur-masaren isuri-arroan dago. Eremu horren egoera globala, 2019-2023 urte anitzeko balorazio-aldirako, «ona baino okerragoa» da. Eremuaren barruan ez da ur-ibilgu iraunkorrik identifikatu, baina Urola ibaiak berak inguratzen du mendebaldetik, eta ibilguaren zaintza-eremuaren barruan kokatuta dago zati batean. Eremuan ez dago Plan Hidrologikoko Eremu Babestuen Erregistroko elementurik.

Planak antolatzen duen lurzorua «Hegoaldeko antiklinorioaren» (ES017MSBT017-006 kodea) lurpeko ur-masaren gainean dago eta, oro har, egoera onean dago. Eremuan ez dago akuiferoen urrakortasun nabarmenik, eta eremuak ez du bat egiten interes hidrogeologikoko ezein eremurekin.

Eunis (geoEuskadi) habitaten kartografiaren arabera, eremua, nagusiki, dentsitate handiko eta zapaldutako eremuetako herri eta hirietako eraikuntza gisa identifikatzen da, eta horrek eremuaren antropizazio-maila handia adierazten duen hasierako dokumentu estrategikoa berresten du. Gainera, eremuaren ekialdeko mugan *Pinus radiata* landaketak daude, eta mendebaldean, hostozabal gazteen baso naturala. Ez da flora mehatxaturik topatu. Eremuaren hegoaldeak muga egiten du 4030 Txilardi lehor europarrak Batasunaren Intereseko Habitatarekin (aurrerantzean, BIH).

Dirudienez, eremuan dagoen fauna hiri-eremuetara egokitutako espezie arruntek osatzen dute. Planaren eremuak ez du ukitzen mehatxatutako fauna kudeatzeko planen xede den ezein espaziorekin, baina adierazi behar da, eremutik 2 km-ra edo, Gipuzkoa erdialdeko abifauna babesteko eremua dagoela, zeina Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2016ko maiatzaren 6ko Aginduan jasota baitago (2016/05/23ko EHAA, 96. zk.). Era berean, eremutik 8 km hegoaldera Aizkorri-Aratz dago, zeina, Euskal Autonomia Erkidegoko Batasunaren Intereseko Hegazti Nekrofagoak Kudeatzeko Baterako Planaren arabera, interes bereziko eremutat eta hegazti nekrofagoak elikatzeke babes-eremutat hartzen baita (2015/07/01eko ALHAO, 2015/06/24ko BAO).

Eremua Legazpiko ikuspen-arroari dagokio, eremu antropogenikoan hiri-paisaia bat eta ibai-eremuan nekazaritzako eta basogintzako mosaiko bat osatzen ditu. Eremua ez dago EAEko Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogoan sartuta (Eusko Jaurlaritzak, 2005).

Eremuan ez da kultura-ondare babestuko elementurik identifikatzen, baina eremuaren mendebaldean, Urola ibaiaren beste aldean, Urretxuko udal-mugartean, Esteban Orbegoza Galdategia (63. fitxa-zenbakia) eta Altxairutegia (63-2. fitxa-zenbakia) daude, tokiko intereseko kultura-ondarean eraikitako bi elementu.

Ingurumen-arriskuei dagokienez, eremuak hiru kode-lurzati ditu, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten lurzoruen inbentarioan sartuta daudenak (kodeak: 20080-00066, 20080-00091 eta 20080-00036). Bestalde, eremuaren mendebaldean salgai arriskutsuen garraioan istripuak izateko arrisku ertaina duen tren-trazatu baten 200 m-ko afekzio-bandaren barruan dago, eta eremuaren gainerakoa, berriz, 600 metroko afekzio-bandaren barruan. Era berean, eremua salgai arriskutsuen garraioan istripuak gertatzeko arrisku oso txikia duen errepide baten 100, 200 eta 600 metroko banden barruan dago.

Eremuak ez du baso-sutearen arriskurik, zuhaitzak dauden eremuak izan ezik: eremu horretako erdialdeko pinu-landaketek baso-sutearen arrisku oso handia dute, eta mendebaldeko hariztiak oso arrisku txikia. Eremuaren hegoaldeak baso-suteak izateko arrisku handia eta oso handia duten eremuekin egiten du muga.

Beste arrisku batzuei dagokienez, ez da arrisku handirik identifikatu sismikotasunari, uholde-arriskuari, akuiferoen kalteberatasunari, baso-suteei, SEVESO enpresen gertutasunari edo muturreko higadura-prozesuen potentziala duten eremuei dagokienez, eta ez dago salgai arriskutsuen garraioan istripuak izateko arrisku handia duen errepiderik.

4. Jarduketak kokatzeko eremu desegokiak.

Ingurumenaren ikuspegitik problematikoak diren eta gerora proposamenak gauzatzean zaindu beharko diren eremuak detektatu beharko ditu ingurumen-azterketa estrategikoak. Eremuaren ingurumen-diagnostiko egoki bat egin beharko da, eremuaren harrera-gaitasuna, arrisku-eremuak eta

eremu hauskor edo kalteberak ebaluatzea ahalbidetuko duena. Diagnostikoa aplikatu beharreko ingurumen-araudia errespetatuz egin beharko da, bereziki honako gai hauei dagokionez: sistema hidrologikoaren eta jabari publiko hidraulikoaren zaintza; uholde-arriskua; naturaren kontserbazioa; espezie inbaditzaileak; kultur ondarea; lurzoruen kutsadura eta kutsadura akustikoa.

5. Aurretiaz egindako kontsultei emandako erantzunen ingurumen-azterketa laburra.

Eragindako administrazio publikoei eta interesdunei egindako kontsulten izapidea amaitu ondoren, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren, Euskal Kultura Ondarearen Zentroaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Oreka Berdearen Sailaren erantzunak jaso dira.

Jarraian, jasotako txostenetan jasotako ingurumen-alderdirik nabarmenenak laburtuta daude.

Kultura-ondareari dagokionez:

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Euskal Kultura Ondarearen Zentroak jakinarazi du proiektuaren eremuan ez dela eraginik hauteman Kultura Ondareari dagokionez.

Natura-ondareari dagokionez:

Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Oreka Berdearen Sailak jakinarazi duenez, Planaren eremua kalifikazio industrial duen lurzoru urbanizagarri gisa dago sailkatuta, eta EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialaren antolamendutik kanpo geratzen da; beraz, ez da nekazaritzako lurzorurik galduko. Ondorioz, ondorioztatzen du ez dagokiola berari Planari buruzko informazioa ematea.

Osasunari dagokionez:

Eusko Jaurlaritzako Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzaren Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendariordeak adierazi du komenigarria dela etxebizitzak dituzten eremuak eremu garrantzitsutzat hartzea, eta ingurumen-azterketa estrategikoan horien kontuan hartu beharreko funtsezko alderdiak aztertzea, Planaren ekintza garrantzitsuenak edo esanguratsuenak adierazita (eragin-eremuko biztanleengan duten eragin negatibo/positiboaren arabera). Deskribatu eragindako biztanleria, eraikin kalteberak dauden (ikastetxeak, zentro soziosanitarioak) eta pertsonak zein eremutan egon ohi diren (parkeak, aire zabaleko jolas-guneak, etab.).

Azpiestazio elektriko berri bat ezarri denez, ebakuazio-azpiegituran sortzen diren eremu magnetikoen eta elektrikoen kalkuluaren modelizazio bat egitea ere iradokitzen du, proiektu espezifiko horiek egiteko garaian biztanleria kontuan hartuta. Era berean, irailaren 28ko 1066/2001 Errege Dekretuan ezarritakoa betetzeko beharra ere iradokitzen du (*1066/2001 Errege Dekretua, irailaren 28koa, jabari publiko erradioelektrikoa babesteko baldintzak, emisio erradioelektrikoen murrizketak eta emisio erradioelektrikoetatik babesteko osasun-neurriak ezartzen dituen Erregelamendua onartzen duena*).

6. Ingurumen-azterketa estrategikoan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdien definizioa eta irismena.

Ingurumen-azterketa estrategikoak (aurrerantzean, Azterketa) Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. Eranskinean ezarritako gutxieneko edukia izan beharko du, eta haren osagarri erabiliko da, halaber, planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren II. Eranskinean jasotakoa.

Aurrekoarekin bat etorritik, garatzen diren apartatuek honako eskema metodologiko hau bete behar dute:

1. Proposatutako Planaren deskribapena.
 - 1.1 Plangintzaren esparrua eta helburuak.
 - 1.2 Planaren irismena, edukia eta garapena.
 - 1.3 Plangintza-alternatibak.
2. Ingurumenaren karakterizazioa.
 - 2.1 Ingurumen-egoeraren deskribapena
 - 2.2 Laburpena: ingurumen-alderdi garrantzitsuak
3. Ingurumen-ondorioak.
4. Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak.
5. Ingurumena zaintzeko programa.
6. Ingurumen-laburpena.
7. Laburpen ez-teknikoa.

Ebaluatzen den dokumentuaren ezaugarriak direla eta, uste da Azterketak alderdi hauetan sakondu behar duela hemen adierazten den zabalatasunarekin eta zehaztasunarekin:

6.1 Planaren deskribapena

Deskribatuko da zer alderdik osatzen duten plana, eta argi eta garbi identifikatuko da Plana gauzatzeak etorkizunean eragin ditzakeen ekintzetatik zeinek izan ditzakeen ondorio kaltegarriak ingurumenean. Hori guztia, honako apartatu hauetan adierazitako egiturekin eta xehetasunekin:

6.1.1 Plangintzaren esparrua eta helburuak:

a. Azterketak Planaren helburu zehatzei buruzko laburpen txiki bat izango du. Gainera, azterketak labur-labur azaldu beharko du nola hartu diren kontuan, Plana egitean, txosten honetako 2. atalean ingurumena babesteko jasotako helburuak eta jasangarritasun-printzipio eta -irizpideak.

b. Hierarkian plana baino goragoko mailan dauden planak edo programak identifikatuko dira. Azaletik deskribatuko dira Planaren xedearekin edo eremuarekin zerikusia duten plan edo programa horien zehaztapenak eta aurreikuspenak, bai eta Planari aplikatu behar zaizkion ingurumena babesteko irizpide, helburu eta zehaztapenak ere. Hierarkian Planaren gainetik dauden plan edo programen onspen-egintzaren aipamena eta data aurkeztuko dira, eta plan edo programa horien ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin den edo ez zehaztuko da.

c. Hala badagokio, adierazi beharko da zer irizpide eta zehaztapen ezarri diren hierarkiaz Planaren gainetik dauden planen ingurumen-adierazpen estrategikoan, baita plana garatzeko beste tresna batzuetan ezarritakoak ere, baldin eta ebaluatu beharreko planaren eremuari edo xedeari aplikatzekoak badira. Ingurumen-adierazpen estrategikoen erreferentzia aurkeztuko da, zehaztuta zer aldizkari ofizialetan argitaratu diren, eta kontsulta-gunerako esteka txertatuta.

d. Adierazi beharko da ingurumena babesteko zer irizpide, helburu eta zehaztapen finkatzen diren arauetan eta planarekin hierarkia-harremanik ez duten beste plan eta programa batzuetan

(Batasunekoak, estatukoak, autonomia-erkidegokoak edo tokikoak), baldin eta aplikatu beharrekoak badira.

Zehazki, eta beste batzuen artean, plan eta arau hauek hartuko dira kontuan:

- EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG).
- Beasain-Zumarragako (Goierri) eremu funtzionaleko Lurralde Plan Partziala.
- EAEko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala
- EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala
- Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektoriala.
- Zumarragako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra
- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa (2022-2027).
- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana (2022-2027).
- 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hots Kutsadurari buruzkoa.
- 4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Lurzoruaren Kutsadura Prebenitzekoa eta Zuzentzekoa.
- 1/2024 Legea, otsailaren 8koa, Trantsizio Energetikoarena eta Klima Aldaketarena.

6.1.2 Planaren irismena, edukia eta garapena:

a. Planaren irismenak ezin hobeto definituta geratu beharko du. Planaren aplikazioaren ondorioz planteatzen diren ekintzen deskribapen zehatz bat egingo du Azterketak, eta haiek lotura izan beharko dute Planak eragindako eremuan indarrean den hirigintza-antolamenduaren aldean dakartzan aldaketekin edo xehakapenekin, baldin eta ingurumenean ondorio kaltegarri nabarmenak izan baditzaizkete, betiere eremuaren garapenerako beharrezkoak diren jarduketak guztiak aintzat hartuta.

Behar besteko xehetasunez deskribatuko dira Planak azkenean hartutako garapen-alternatiba eta haren ondoriozko jarduketak zehatzak, eta hartutako hirigintza-konponbidea justifikatu beharko da.

b. Planaren proposamenak gauzatzeko erabiliko diren proiektu eta jarduketak ezaugarriak buruzko aurreikuspena egingo da.

Azterketak, hala badagokio, Plana esparru duten eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa behar duten proiektuak identifikatu beharko ditu, eta garapen baldintzak eta proiektu horiek garatzeko unean ahalik eta kalte gutxien sortzeko jarraibideak ezarri beharko ditu.

c. Ingurumenean eragina izan dezaketen Planeko ekintzak deskribatu eta kokatuko dira, eta garrantzi handienekotik txikienera hierarkizatuko dira, kontuan hartuta haien kokapen zehatza, izaera, garrantzia eta baliabide naturalen kontsumoa. Horrela deskribatutako plan-ekintza bakoitzari kode bat esleituko zaio. Kode hori Azterketaren hurrengo ataletan erabiliko da, baldin eta aipatu behar bada.

d. Plana onartu ondoren, haren garapena zehaztu eta plangintzaren geroagoko faseak aipatuko dira, baita Planaren zehaztapenak ezartzeko tresnak ere. Era berean, aurreikusiko da garapen-tresna edo -proiektu horien ingurumen-ebaluazioa egin beharko dela, hala badagokie.

e. Nolanahi ere, Plana garatzeko zenbat denbora aurreikusten den erantsiko da, eta, hala badagokio, aurreko atalean azaldutako ekintzetarako denbora-aurreikuspena zehaztuko da.

f. Epigrafe horretan bildutako informazioa kartografikoki islatuko da dagokion eskalan, eta lurraldearen erabilera adierazi beharko da, baita ingurumen-ondorio nabarmenak ekartzeko arriskua duten Planaren aurreikuspen eta jarduketak ere. Informazio kartografikoa erantsi beharko da, eta, gutxienez, honako hauek jasoko ditu: eremuaren mugaketa, zonakatze zehatza eta jarduketa guztien kokapena, *pdf* (geo-erreferentziatuta) eta *shape* formatuetan, berrikuspen-lana errazteko.

6.1.3 Plangintza-alternatibak:

a. Azaletik deskribatuko dira Plana prestatzeko prozesuan kontuan hartu diren alternatiba guztiak. Alternatiba horiek bideragarriak izan beharko dute teknikoki eta ingurumenaren aldetik, eta alderdi hauei buruzkoak izan daitezke: kokalekua, garapen teknikoa, aldi baterako garapena, kudeaketa, antolamendua, baliabide naturalen erabilera eta abar. Era berean, 0 alternatiba edo ez esku hartzeko alternatiba ere hartuko da kontuan. Kasu horretan, hau izango da erreferentzia: Planaren proposamenak aplikatu ezean jarduketa-esparruaren alderdi garrantzitsuek izan dezaketen bilakaera.

b. Alternatiba horien irismena deskribatuko da, eta zehaztuko da zer alde dagoen alternatiba bakoitzaren arabera Planean jasotako proiektuen eta ekintzen eta 6.1.2.b atalean deskribatutako proiektuen eta 6.1.2.c atalean deskribatutako ekintzen artean.

c. Laburpen bat ere jasoko da azaltzeko zergatik baztertu diren aztertutako plangintza-aukerak eta zergatik onartu den azkenean proposatutako aukera.

d. Aztertutako aukerak kartografikoki jasoko dira.

6.2 Ingurumenaren egoeraren karakterizazioa.

Azterketak deskribatu beharko du nolakoa den ingurumenaren uneko egoera —alderdi nagusiak azalduta— Planaren afekzio-eremuan. Deskribapen horretan, elementu abiotikoen eta biotikoen ezaugarriak aztertuko dira, bai elementu bakoitzaren ikuspuntu sektorialetik, bai haien elkarreraginaren ikuspuntutik, eta ingurumenaren uneko egoeraren ikuspegi integratua emango da.

Planaren eraginpeko eremutzat hartuko da, hura kokatzen den eremu osoaz gain, eremu horren ingurunerik hurbilena, baina Planaren ekintzek ingurumen-ondorio nabarmenak izan ditzaketen guneeetan bakarrik.

Ingurumenaren kalitatearen gaineko alderdiei buruzko informazioa azterketetan edo bestelako erreferentzia-dokumentuetan oinarrituta dagoenean, emandako datuen iturria identifikatuko da, eta adieraziko da zein den izenburua, urtea eta egilea, eta, hala badagokio, zer esteka balia daitekeen lana osorik kontsultatzeko.

Azterketak ingurunearen aldagaiak bilduko ditu, eskala egokiko planoetan.

6.2.1 Ingurumen-egoeraren deskribapena:

Honako ingurumen-alderdi hauek hartuko dira aintzat, gutxienez:

a. Ingurune fisikoa. Zenbait faktore hartuko dira kontuan, hala nola arroka ama eta zorupea, haien iragazkortasuna, ur-masak eta ur-puntuak, ingurune hidrikoaren inbentarioa (lurrazaleko eta lurpeko ur-masak), faktore klimatikoak eta lurzoru mota.

b. Natura-ondarea. Jasota utziko dira dauden natura-intereseko eta interes ekologikoko elementuak, hala nola ibaien ibilguak, Batasunaren intereseko habitatak, landaredia, mehatxatutako fauna eta flora

espezieen banaketa-eremuak, naturagune babestuak, hezeguneak, interes geologikoko lekuak eta abar. Dauden elementuen kontserbazio-egoerari buruzko datuak emango dira, bai eta interes-mailari, urrakortasunari eta gaur egungo presioei eta arriskuei buruzko datuak ere, eta Plana gauzatzearen ondorioz areagotzeko arriskua ote duten adieraziko da.

Illo horretatik, zehatz-mehatz deskribatu beharko da hartutako antolamendu-alternatibak zer landarediri eragingo dion, landare mota bakoitzaren okupazio-eremua, kontserbazio-egoera eta funtzionaltasun ekologikoa adierazita. Halaber, eremuan dauden landaredi aloktono inbaditzaileko espezieak identifikatu beharko dira.

c. Paisaia. Pertzepzioaren ikuspuntutik interesekoa den elementurik dagoen aztertuko da.

d. Ingurumen-arriskuak eta -arazoak. Arriskuei buruz jaso diren datu guztiak emango dira, hala nola lurpeko uren urrakortasunari, uholde-arriskuari, arrisku geoteknikoei, klima-aldaketak eragindako arriskuei edo aipatzeko moduko beste edozein ingurumen-arriskuri buruzkoak.

Orobat, airearen, uraren edo lurzorua kalitateari dagokionez hautemandako ingurumen-arazoak deskribatuko dira, egoera akustikoa barne. Kutsagarriak izan daitezkeen iturriak eta kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak jasan dituzten lurzorua identifikatuko dira, eta natura-baliabideen erabilgarritasuna aztertuko da; bereziki, urarena.

Arreta berezia eskainiko zaie lhoberen lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten lurzoruen inbentarioan sartutako lurzatiei.

Hala dagokionean, aipatutako ingurumen-arrisku eta -arazoen eraginpean egoteko arriskua duten eremuko guneak identifikatu eta lokalizatuko dira.

e. Kultura-ondarea. Atzemandako elementu bakoitzaren garrantzia, urrakortasuna, babes-tresna eta babes-maila adieraziko dira. Era berean, kultura-ondasunari kalifikazioa eta babes ematen dizkion xedapen arauemailearen aipamena ere egingo da.

f. Apartatu honetan, gainera, dauden beste ingurumen-baldintzatzaile batzuk landuko dira, baldin eta planaren ingurumen-ebaluaziorako garrantzitsuak badira, hala nola mugikortasunari eta garraioari buruzko alderdiak, eremuko irisgarritasun-baldintzak, baliabide berriztagarrien eta ez-berriztagarrien kontsumoari lotutako beharrak (ura, energia eta beste), jendea bizi den eremuen presentzia eta eragindako biztanleria.

6.2.2 Laburpena: ingurumen-alderdi garrantzitsuak:

Aurreko atalean azaldutako deskribapen eta datuak oinarri hartuta, ingurumenaren egungo egoera aztertuko da Planaren eraginpeko esparruan, eta labur-labur jasoko da zein diren Planeko jarduketaren ondoriozko elementu, prozesu, arazo eta ingurumen-arrisku garrantzitsuenak ingurumen-ebaluazioko prozesuan. Ingurumenaren ikuspegitik interesgarriak diren gune, elementu edo egoeretan jarri beharko da arreta, baita eragina jasan dezaketen alderdietan ere, Planean jasota dauden jarduketaren ondorioz sortuko diren proiektuen eta ekintzen kokapena eta ezaugarriak kontuan hartuta.

Azterketak ingurumen-ikuspegitik arazotsuak diren eremuak hauteman beharko ditu, proposamenak haietara egokitzeko.

Eremuaren ingurumen-diagnostiko egoki bat egin beharko da eremuaren harrera-gaitasuna, arrisku-guneak, eremu ahulak edo kalteberak ebaluatzeko aukera emango duena. Atal hau idazteko, hauek

hartuko dira kontuan gutxienez: txosten honen 3. atalean aipatu diren ingurumen-eremu garrantzitsuak eta aplikatu beharreko araudietan eremu horietarako ezartzen diren mugaketak.

Kasu honetan, Planak planteatzen dituen jarduketan garapena baldintzatzen duten alderdiak honako hauek dira: natura-ondarea babestea (hostozabal gazteen basoak eta 4030 BIH Txilardi lehor europarrak daudelako eremuaren mendebaldean eta hegoaldean, hurrenez hurren), jabari publiko hidraulikoa babestea eta lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten lurzorua egotea. Alderdi horiek aztergai izango dira Azterketan.

6.3 Proposatutako planaren ingurumen-ondorioak.

a. Atal horretan, identifikatu eta baloratuko da zer ondorio izan ditzaketen Planaren ekintzek 6.2 atalean deskribatutako ingurumen-kalitateko elementuetan, eta ondorio horien ezaugarriak deskribatuko dira. Planaren ondorioak identifikatu eta haien ezaugarriak deskribatzeko, azterketa bat egingo da jakiteko zer-nolako elkarreragina dagoen bertan aurreikusitako ekintzen eta eragina izateko arriskuan dauden ingurumen-elementuen ezaugarri espezifikoaren artean, baita zer ingurumen-arazo eta -arrisku sortu edo areagotu daitezkeen jakiteko ere.

Ezaugarrien deskribapenean, zehatz eta argi adierazi beharko da zer motatako ondorioak dauden, honako hauek bereizita: albo-ondorioak, metatuak, ondorio sinergikoak, epe labur, ertain eta luzerakoak, ondorio iraunkorrak eta aldi baterako ondorioak.

Azterketaren 6.1.2.c atalean identifikatutako ekintza guzti-guztien ingurumen-ondorioak deskribatuko dira, eta berariaz aipatuko da atal horretan ekintzei esleitutako kodea.

Hala dagokionean, zehaztu egingo da zer ondorio dakarren zenbait ekintzaren konbinazioak. Gainera, ingurumen-izaerako edozein ondorio bereiziko da, baldin eta biztanleriaren, giza osasunaren edo ondasun materialen gainean eragin kaltegarri eta nabarmenak izan baditzaie.

Horrela deskribatutako ondorio bakoitzari kode bat esleituko zaio. Kode hori Azterketaren hurrengo ataletan erabiliko da, haiei erreferentzia egitea beharrezkoa bada.

Beste alderdi batzuen artean, honako eragin hauek ebaluatuko dira:

- Ebaluatuko da zer eragin izan dezakeen Urola ibaian, jabari publiko hidraulikoan eta ibilguak zaintzeko eremuan, eta arlo horretako araudia betetzen dela justifikatuko da.
- Era berean, obrako soberakinak eta eraipen eta birgaitzeetatik eratorritako hondakinak sortzearen ondoriozko balizko afekzioak analizatuko dira, eta arreta berezia jarriko zaie amiantoari izan dezaketen elementuei.
- Indusketetatik eta lur-mugimenduetatik eratorri daitezkeen afekzioak aztertuko dira –bai eta soberakinak sortzetik eratorritakoak ere–; bereziki, kutsatuta egon daitezkeen lekuak inbentariatuta dituzten eremuetan egiten direnean.
- Planak proposatutako antolamenduak eremuan dauden zuhaitzengan dituen ondorioen ezaugarriak zehaztu eta baloratuko dira. Antolamenduan sartu beharreko zuhaitz-landaredia eta kendu beharrezkoa identifikatuko dira. Zehazki, Planak eremuaren hegoaldean dagoen 4030 Txilardi lehor europarren gainean duen eragina aztertuko da, baita eremuaren mendebaldean dagoen hostozabal gazteen basoarena ere.
- Espezie aloktono inbaditzaileak barreiatzeko arriskua aztertuko da.

- Azterketaren bidez analizatuko da Plana bateragarria den kaltetu litezkeen ondare- eta kultura-intereseko elementuak izendatzearen ondoriozko babes-irizpideekin.
- Ibai-ibilguetan eta haien ertzetan izan daitezkeen afekzioak aztertuko dira.
- Garapenak ingurunean izango duen paisaia-eragina aztertu beharko da.
- Ustiapen-fasean, inpaktuak eragin litzake eremuan jarduera handitzeak: hondakinen sorrera eta ur- eta energia-kontsumoa areagotzea, bai eta eragindako mugikortasuna ere. Ingurumen-azterketa estrategikoak inpaktu horiek ere aztertuko ditu
- Ingurumen-azterketa estrategikoan aztertuko da zenbateraino betetzen diren, aurreikusi diren erabileretan, Kalitate Akustikoko Helburuak (KAH), Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan ezarritakoak. Egiaztatu beharko da etorkizunean kalitate akustikoko helburuak bete ahal izango direla planaren antolamendu-eremuan, urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 37. artikuluan eta hurrengoetan jasotakoari jarraituta. Ingurumen-azterketa estrategikoak informazio hau izan beharko du:
 - Soinu-iturrien analisia, arauaren 38. artikuluan xedatutakoaren arabera.
 - Diseinu-alternatiben azterketa, arauaren 39. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.
 - Kalitate Akustikoko Helburuak lortzeko behar diren neurrien definizioa, izapidetzen den antolamendu motara egokitua.
- Antolamenduaren eragin-eremuko biztanleriaren gaineko eraginak aztertuko dira, bai obren fasekoak, bai ustiapen-fasekoak.

b. Identifikatu eta kodetutako ondorio bakoitza baloratzeko, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan, besteak beste:

- Gertatzeko zer probabilitate duten, zenbateko iraupena eta maiztasuna izan dezaketen, eta itzulgarriak ote diren.
- Ondorioen garrantzia eta irismen espaziala.
- Eragina jasateko arriskuan dagoen eremuaren balioa eta urrakortasuna, honako hauek kontuan hartuta:
 - Natura-, kultura- eta paisaia-ezaugarri berezirik badagoen.
 - Aurkako ingurumen-baldintzarik badagoen, airearen, uraren edo lurzorua kalitate-estandarrak edo muga-balioak gainditzea eragin dezakeenik.
 - Planak zer neurritan sortu edo areagotu ditzakeen ingurumen-arriskuak.

Ahal den guztietan, ingurumen-ondorioak kuantifikatzeko, Planean aurreikusitako jarduketek eta proiektuek aipatu diren ingurumen-faktoreetan eragindako egoera-aldaketak zenbatetsiko dira, datu neurgarriak erabilita. Hala badagokio, ondorio horiek iragartzean zer ziurgabetasun-maila dagoen adieraziko da.

c. Halaber, ahal den neurrian, efektuak kartografikoki lokalizatuko dira, eta, orobat, plan edo programaren zer fasetan gerta daitezkeen zehazteko ahalegina egingo da.

d. Adieraziko da hautemandako ondorio horren sorburu-ekintzak eskatzen duen ala ez Planaren zehaztapenak beste plan eta programa batzuetan txertatzea, eta kasu bakoitzean zehaztuko da zein plangintza-tresnari eragingo zaion.

e. Horrela deskribatutako ingurumen-efektuak hierarkizatuko dira, eta haien garrantzi erlatiboa nabarmenduko da.

6.4 Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak.

a. Atal honetan, Azterketaren 6.3 atalean deskribatutako ingurumen-ondorio kaltegarriak prebenitzeko, murrizteko eta, hala badagokio, konpentsatzeko zer neurri aurreikusi diren azaldu behar da. Hartzen diren neurriek bermatu beharko dute ez dela ingurumen-ondorio esanguratsurik sortuko Planaren ekintzak garatzearen eta etorkizunean gauzatzearen ondorioz. Haien helburua izango da natura-, kultura- eta paisaia-baliabideak babestea, natura-arriskuak prebenitzea eta detektatutako ingurumen-arazoen aurrean hobetu eta egokitzea.

b. Proposatutako neurriek koherenteak izan beharko dute aurreikusitako ingurumen-ondorioekin. Neurriak deskribatuko dira, eta Azterketaren 6.3 atalean identifikatutako ondorioekin –prebenitu, zuzendu edo konpentsatu nahi direnekin– lotuko dira. Bereziki, eta beste batzuen artean, neurri hauek zehaztuko dira:

- «Ingurumena eta paisaia leheneratzeko plan» bat idatzi beharko da, plana gauzatzearen ondorio guztietarako (aurrekontua barne). Lehengoratzeko Planak 2. Altzairutegia eremuaren inguruko berdeguneak definitzeko proposamena jasoko du. Ihobek argitaratutako «Lorategi eta berdegune jasangarriak diseinatzeko eskuliburua» aintzat hartzea gomendatzen da. Eremu libreak diseinatzeko zehazten diren irizpideek, haiek ezartzea bermatzeko modu gisa, 2. Altzairutegia eremuko araudi partikularrean agertu beharko dute.
- Obrek aldi baterako eragindako eremuak eta esku-hartzerik egin gabe geratuko diren eremu libreak birlandatzea aurreikusiko da, bertara egokitutako landaredi autoktonoa oinarri hartuta.
- Gainazaleko uren kalitatea babesteko neurriak garatuko dira, kontuan hartuta obrek gainazaleko sistema hidrologikoari eragin diezazkioketen kalteak.
- Sortutako hondakinak behar bezala kudeatzeko neurriak ezarriko dira, gaian indarrean dagoen araudiaren arabera.
- Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioan jasotako lurzatietako jarduketek, hala nola indusketek eta lur-mugimenduek, ekainaren 25eko 4/2015 Legea bete beharko dute, baita ekainaren 25eko 4/2015 Legea garatzen duen abenduaren 26ko 209/2019 Dekretua ere.
- Hala badagokio, kalitate akustikoaren helburuak lortzeko behar diren neurriak ezarriko dira, EAEko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 40. artikuluan zehaztutakoaren arabera eta eremu akustikoak eta erabilera aurreikusitako kontuan hartuta.
- Neurriak ezarriko dira garapenen energia-aurrezpena eta -efizientzia, mugikortasun jasangarria eta energia berriztagarrien sustapena bultzatzeko.
- Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak eskatzen duenarekin bat etorritik, klima-aldaketa izan lezakeen eragina arindu eta hartara egokitzeko neurriak barne

hartuko ditu ingurumen-azterketa estrategikoak. Xede horrekin, lhobek egindako gida metodologiko hauek erabili ahal izango dira erreferentzia gisa: «Klima-aldaketara egokitzeko udal-programak egiteko gidaliburua. Udalsarea 21 lan-koadernoak» eta «Euskadiko Hirigintzaren Plangintzari buruzko eskuliburua klima-aldaketa arintzeko eta klima-aldaketara egokitzeko». Era berean, Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren otsailaren 8ko 1/2024 Legean hirigintza-plangintzarako adierazten diren neurriak bultzatuko dira.

- Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren maiatzaren 20ko 7/2021 Legean ezarritakoarekin bat etorritik, Plana garatzeko proiektuak diseinatzeko, klima-aldaketen aurrean pixkanaka eta erresilientzia egokitzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko dira kontuan. Adibidez, klima-aldaketa egokitzeko eta «bero-uharte efektua» murrizteko helburuarekin, ingurunea eta garapenak hartzen ez dituen espazioak naturalizatzeko prozesuak sustatuko dira.

c. Adieraziko da Planaren zein zatitan txertatu diren proposatutako neurriak, eta espresuki zehaztuko da Planean bildutako zein dokumentu teknikotan jaso diren neurri horiek.

d. Hala badagokio, prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak proposatuko dira, horiek aplikatzea komenigarria edo egingarria denean, bai plangintzaren geroagoko fase edo etapetan, bai Plana gauzatzeko diseinatzeko diren etorkizuneko proiektuetan.

e. Kostu ekonomikoren bat dakarten prebentzio- eta zuzenketa-neurrien aurrekontua ere jasoko da, eta, horrez gain, haiek gainbegiratzeaz arduratuko den agentea edo pertsona zein den adieraziko da.

6.5 Ingurumena zaintzeko programa.

a. Azterketak ingurumena zaintzeko programa bat garatuko du, eta, hartan, Plana aplikatzeak dakartzan ondorioak berrikusteko aurreikusitako neurriak deskribatuko dira. Neurri horien helburua alderdi hauek kontrolatzea izango da:

- Planak ingurumenean izan ditzakeen efektu kaltegarriak prebenitu, murriztu edo zuzentzeko neurriak behar bezala ezartzen direla gainbegiratzea.
- Ingurumen-elementu garrantzitsuen eta Plana martxan jarri aurreko ingurumen-arazoen bilakaera zaintzea.
- Plana gauzatzeak eragindako ingurumen-ondorioak aztertzea, aurreikusi gabeko ondorio kaltegarriak azkar identifikatzeko ez ezik, haiek eragozteko edo zuzentzeko neurri egokiak hartzeko ere.
- Aztertzea ea prebentzio- eta zuzenketa-neurri osagarriak hartu behar den Plana gauzatzeko aurreikusitako garapen-tresnetan eta proiektuetan.

b. Jarraipen-neurriak identifikatuko dira, eta bat etorri beharko dute Azterketaren 6.4 atalean jasotako babes-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriekin.

c. Ingurumena zaintzeko programak jaso beharko du zer adierazle proposatzen diren Azterketan, bai eta zer proposamen zehatz egiten den ere, kasu bakoitzean datuak biltzeko erabiliko diren aldizkakotasunari eta metodoei buruz.

6.6 Ingurumen-laburpena.

a. Ingurumen-alderdiak Planean nola txertatu diren deskribatuko da. Xehetasunez aztertuko da nola hartu diren kontuan eta nola betearazi diren Azterketaren 6.1.1. atalean ingurumena babesteko finkatutako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak.

b. Aztertuko da zer-nolako probabilitatea dagoen Planak etorkizunean ingurumenean ondorio nabarmenak izateko, eta behar diren argudioak emango dira honako hau egiaztatze aldera: proposatutako babes-, zuzenketa- edo konpentsazio-neurriak Planean txertatuz gero, oso arrisku txikia dagoela ondorio nabarmen horiek gertatzeko, eta, ondorioz, ez dagoela eragozpenik Plana garatzeko. Ondorio hori oinarritzeko, Azterketaren gainerako ataletan jasotako informazioei buruzko erreferentzia egokiak erabiliko dira.

6.7 Laburpen ez-teknikoa.

a. Azterketak barnean hartuko du emandako informazioaren laburpen ez-tekniko bat, eta ebaluazio-prozesuan jorratutako gaietako prestakuntza espezifikorik ez duten pertsonen erraz ulertzeko moduan idatzita egon beharko du laburpen horrek.

b. Laburpen horri, gainera, egindako ebaluazioa hobeto ulertzen lagunduko duen informazio grafikoa erantsi beharko zaio, edo, bestela, informazio hori erraz eskuratzeko behar diren erreferentziak jaso beharko dira.

7. Jendaurreko informazioaren izapideak eta kontsultak.

Abenduaren 9ko 21/2013 Dekretuaren 21. artikuluan eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 73. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, organo substantiboak jendaurrean jarriko du Planaren hasierako bertsioa, baita ingurumen-azterketa estrategikoa ere, gutxienez 45 egun balioduneko epean.

Era berean, organo substantiboak, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 22. artikuluan eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 73. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, gutxienez, irismen-dokumentu hau egiteko kontsulta egin zaien administrazio publiko ukituen eta interesdunen eskura jarriko ditu Planaren hasierako bertsioa eta ingurumen-azterketa estrategikoa, azter ditzaten. Hona hemen egindako kontsulten zerrenda:

- Eusko Jaurlaritzaren Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendariordeztza. Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza.
- Eusko Jaurlaritzaren Ondarearen, Jabetza Intelektualaren eta Lege Gordailuaren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondarearen eta Klima Aldaketarekiko Egokitzapenaren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza.
- URA. Uraren Euskal Agentzia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natura Inguruneen Zuzendaritza Nagusia.
- Ihobe.
- Ekologistak Martxan.
- Eguzkizaleak elkarte (Eguzki).
- Ancora elkarte.

8. Dokumentazioa aurkezteko jarraibideak.

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 24.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, organo substantiboak ingurumen-ebaluazio estrategikoaren espediente osoa igorriko dio ingurumen-organoari, honako hauek barnean hartuta: plan edo programaren azken proposamena, ingurumen-azterketa estrategikoa, informazio publikoaren eta kontsulten emaitzak, eta laburpen-dokumentu bat, plan edo programaren azken proposamenean honako alderdi hauek nola txertatu diren azaltzen duena: ingurumen-alderdiak, ingurumen-azterketa estrategikoa eta hori irismen-agirira nola egokitzen den, egindako kontsulten emaitza, eta kontsulta horiek nola hartu diren aintzat.

Ingurumen-adierazpen estrategikoa eskatzeko eta dokumentazioa entregatzeko, behar bezala bete beharko dira Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren webgunean horri buruz dauden jarraibideak, esteka honetan jasotzen direnak:

<https://www.euskadi.eus/informazioa/ingurumen-ebaluazio-estrategikoaren-prozeduraren-tramitazioa/web01-a2inginp/eu/>

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa gidaliburuaren arabera egin eta aurkeztu beharko da. Gidaliburua ingurumen-organoaren webgunean dago eskuragarri, esteka honetan: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/tramitacion_eae/eu_def/adjuntos/2022_Dokumetuak-aurkezteko-GIDA_v4.pdf

Bigarrenena. – Ebazpen hau Zumarragako Udalari jakinaraztea.

Hirugarrena. – Ebazpen hau Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren webgunean argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko maiatzaren 5a.

Ingurumen Administrazioaren zuzendaria,
Nicolás García-Borreguero Uribe.